

ALKATETZAKO DEKRETUA

Lasarte-Orian, bi mila eta zortziko abenduaren hogeita bederatzian.

Ikusirik Lasarte-Oriako Udalaren Eguneko Zentroko erabiltzaileen garraio moldaturako zerbitzua kontratatzeari ekiteko tramitaturiko espedienteak.

Ikusirik ezen, Alkatetzak 2008ko abenduaren 12ko datarekin emandako 3327/2008 dekretuaren bidez, behin-behinean Compañía del Tranvía Eléctrico de San Sebastián a Tolosa, S.A. enpresari adjudikatu zitzaioala aipaturiko zerbitzuaren kontratazioa, 64.000,00 €-ko zenbatekoan gehi Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 4.480,00 € ohiko zerbitzuaren kasuan, eta 5,00 €/km-ko zenbatekoan gehi Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 0,35 € ohiz kanpoko zerbitzuaren kasuan.

Ikusirik ezen aurtengo abenduaren 18an behin betiko bermea aurkeztu duela, kontabilitateko IE 328/2008 dokumentuaren bidez kontabilizatua eta zenbatekoz 3.200,00 eurokoa.

Ikusirik ezen 2008ko abenduaren 19ko idatziaren bidez Compañía del Tranvía Eléctrico de San Sebastián a Tolosa, S.A. enpresak Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda egotearen sinestamendua eta bere betebeharrak tributarioak eta Segurantzaren Sozialarekikoak betetzeari dagokionez egunera egotearen sinestamendua aurkeztu dituela.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzeko 7/1985 legearen 21. artikulua ematen dizkidan eskumenen bertutez,

EBATZI DUT:

Lehenik.- **Compañía del Tranvía Eléctrico de San Sebastián a Tolosa, S.A.** enpresari, zeinek helbidea Lasarte-Oriako (20160) Kale Nagusiko 70.ean baitu eta IFZ A-50001163 zenbakikoa baitu, behin betiko adjudikatzea Lasarte-Oriako Udalaren Eguneko Zentroko erabiltzaileen garraio moldaturako zerbitzua, 64.000,00 €-ko zenbatekoan gehi Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 4.480,00 € ohiko zerbitzuaren kasuan, eta 5,00 €/km-ko zenbatekoan gehi Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 0,35 € ohiz kanpoko zerbitzuaren kasuan.

Bigarrenik.- Kontratatari kontratua adjudikatzeko ebazpen hau notifika dakiola hamar eguneko epearen barruan, eta errekeri dakiola kontratua dokumentu administratiboan formalizatzeraz berehala etor dadin.

Hirugarrenik.- Zerbitzua 2009ko urtarrilaren 1ean hasiko da ematen.

Laugarrenik.- Argitaratu dadila adjudikazioa Probintziako Buletin Ofizialean, kontratua esleitu den datatik kontatzen hasi eta berrogeita zortzi eguneko epean.

DECRETO DE ALCALDÍA

En Lasarte-Oria, a veintinueve de diciembre de dos mil ocho.

Visto el expediente tramitado para proceder a la contratación del Servicio de Transporte Adaptado de los usuarios del Centro de Día del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

Visto que mediante Decreto de Alcaldía 3327/2008 de fecha 12 de diciembre de dos mil ocho, se adjudicó provisionalmente a la empresa Compañía del Tranvía Eléctrico de San Sebastián a Tolosa, S.A. la contratación del citado servicio, por un importe de 64.000,00 € y el Impuesto sobre el Valor Añadido de 4.480,00 € en el caso de un servicio ordinario y de 5,00 €/km y el Impuesto sobre el Valor Añadido de 0,35 €, en el caso de un servicio extraordinario.

Visto que con fecha 18 de diciembre del presente año ha presentado la garantía definitiva contabilizada mediante documento contable IE 328/2008, por importe de 3.200,00 €.

Visto que mediante escrito de fecha 19 de diciembre de 2008 la empresa Compañía del Tranvía Eléctrico de San Sebastián a Tolosa, S.A. ha presentado justificación de estar de alta en el IAE y justificación de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

En virtud de las competencias que me confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local,

HE RESUELTO:

Primero.- Adjudicar definitivamente a la empresa **Compañía del Tranvía Eléctrico de San Sebastián a Tolosa, S.A.**, con domicilio en C/Nagusia 70, Lasarte-Oria, 20160, NIF A-50001163, el Servicio de Transporte Adaptado de los usuarios del Centro de Día del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por un importe, en el caso de un servicio ordinario, de 64.000,00 € y el Impuesto sobre el Valor Añadido de 4.480,00 €, y en el caso de un servicio extraordinario, por un importe de 5,00 €/km y el Impuesto sobre el Valor Añadido de 0,35 €.

Segundo.- Que se notifique al contratista dentro del plazo de diez días la presente resolución de adjudicación del contrato y se le requiera para que inmediatamente, concurra a formalizar el contrato en documento administrativo.

Tercero.- La prestación del servicio se iniciará el 1 de enero de 2009.

Cuarto.- Publíquese la adjudicación en el Boletín Oficial de la Provincia en el plazo de cuarenta y ocho días contados desde la fecha de adjudicación del Contrato.

Nire aurrean — Ante mí,
Idazkaria — El/la Secretario